



**IRIZPEN ZK.: D20-003**

## **ZERBITZU-PARTEAK OHOL OFIZIALETAN ARGITARATZEARI BURUZKO IRIZPENA**

### **AURREKARIAK**

**LEHENENGO:** Ertzaintzako Lanbide Sindikatu baten koordinatzaileak irizpena egiteko eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari. Bulegoari honako galdera hau egin zaio zehazki:

*«Ertzaintzaren lantokietako oholetan eguneroko zerbitzu-partreak jartzen dira, funtzionario guztiek ikusteko moduan; parte horietan azaltzen dira Ertzaintzako funtzionario bakoitzak egin beharreko zerbitzu-mota, baita zerbitzu horretarako esleitutako mugapea edo zona ere.*

*Halaber, talde bakoitzean zerbitzura joango ez diren langileen zerrenda ere jartzen da, eta absentzia hori zein arrazoiengatik gertatuko den azaltzen da, adibidez aldi baterako ezintasun egoeran egitea, sindikatu-lana egiteagatiko baimenak, gaixotasunagatiko eta/edo senide baten heriotzagatiko baimena, norberaren gauzetarako baimena, diziplina-zehapena eta abar.*

*Datu horiek jartzeko ez zaie esanbidezko baimenik eskatu Ertzaintzako funtzionarioei.*

*Alde honen ustez, zerbitzu-parteen zerrendetan egongo ez diren funtzionarioen datu pertsonalak interesdunaren esanbidezko baimenik gabe agertzeak ez dauka garrantzirik zerbitzuak banatzeari dagokionez, eta guztiz alferrikakoa da, baina bereziki larria da absentzia horien arrazoiak adieraztea, horietako batzuk bereziki babestuta dauden datuei buruzkoak baitira, esate baterako osasunari buruzkoak».*

Egitateak azaldu ondoren, eskatzaileak bi galdera egiten ditu: bata egongo ez diren funtzionarioen datu pertsonalak argitaratzea beharrezkoa eta neurritzkoa al den, eta bestea funtzionarioen absentzien arrazoiak argitaratzea neurritzkoa al den.

**BIGARREN:** Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea».*

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.



## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Galdera honetan ebatzi beharreko auzia da ea Ertzaintzaren lantokietako ohol ofizialetan egongo ez diren funtzionarioen datu pertsonalak nahiz absentzien arrazoiak argitaratzeak datuak babesteko araudia betetzen duen.

Hasteko, nabarmendu beharko litzateke datu pertsonalak babesteari buruz gaur egun honako lege hauek daudela indarrean: bata da 2018ko maiatzaren 28az geroztik indarrean dagoela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra); eta bestea da Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, 2018ko abenduaren 7az geroztik indarrean.

Era berean, horiez gain, otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa ezarri behar da Euskal Autonomia Erkidegoan, baita lege hori garatzeko araudia ere, aurreko beste arau horiek xedatutakoarekin kontraesanean ez badago.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 4.1 artikulua honela definitzen ditu datu pertsonalak:

*«Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri (“interesdun”) bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago».*

Eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 4.2. artikulua definitzen du zer den datu pertsonalen tratamendua:

*«Datu pertsonalen ganean edo datu pertsonalen multzoen ganean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabili zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea».*

Bi kontzeptu horiek ikusita, ondorioztatu ahal dugu galderaren xede den gaian datu pertsonalen tratamendua daudela, eta tratamendu horiek datuak babesteko Europako Erregelamenduan aldarrikatutako printzipioak betetzen dituzten aztertuko dugu jarraian.

### II

Kasu honetan, bi galdera egiten dira: egongo ez diren funtzionarioen datu pertsonalak argitaratzea beharrezkoa eta neurritzkoa al den, eta funtzionarioen absentzien arrazoiak argitaratzea neurritzkoa al den.



Horren haritik, lehenengoz nabarmendu behar da datu pertsonalen tratamenduak (eta funtzionarioen datu pertsonalak argitaratzea hala da) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 5. artikuluan jasotako printzipioak bete behar dituela, eta horien artean zilegitasun-printzipioa (5.1a artikulua).

Printzipio hori betetze aldera, datu pertsonalen tratamendu orok legitimatuta egon behar du, hau da, oinarri juridiko bat egon behar da. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6. artikuluan daude araututa oinarri juridiko horiek, eta 1. apartatuan honako honako hauek azaltzen dira: a) adostasuna egotea, b) kontratua edo harreman juridikoa egotea, c) lege-eginbeharra betetzea, d) ukituaren berebiziko interesa egotea, e) interes publikoaren izenean izatea edo botere publikoen izenean izatea edo f) interes legitimo bat lortzea.

Gainera, datu-kategoria bereziak direnean (pertsona fisiko baten arraza edo jatorri etniko, iritzi politiko, pentsamolde erlijioso zein filosofiko edo sindikatu-bazkidetzari buruzko informazioa ematen duten datuak, datu genetikoak eta biometrikoak, eta pertsona fisiko baten osasunari zein bizitza sexualari edo sexu-orientazioari buruzko datuak), arau orokorra da debekatuta dagoela halako datuak tratatzea (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 9.1 artikulua). Edonola ere, legezko manu horren 2. apartatuak debeku horrek dituen salbuespenak xedatzen ditu.

Lan-harreman bat egoteak datu pertsonalen tratamendua legitimatzen du; hala, zerbitzu-parteeetan egongo ez diren funtzionarioei buruzko informazioa ematea interesgarria izan daiteke, zerbitzuaren antolaketa egokiari lotzen zaiolako eta halako datuak argitaratzea lan-arloko loturaren bilakaera eta garapenari lotzen zaio arlo juridikoan, lan-arloko lotura hori administrazio- edo estatutu-eremukoa izan aren. Hala ere, zerbitzua antolatzeari dagokionez, zentzuzkoagoa da prest dauden langileei buruzko datuak argitaratzea, egongo ez diren langileenak argitaratu beharrean, azken horienak erraz ondorioztatzen baitira besteak baztertuta.

Absentzien arrazoiei dagokienez, kontsulta-idazkian honako adibide hauek aipatzen dira: aldi baterako ezintasun egoeran egitea, sindikatu-lana egiteagatiko baimenak, gaixotasunagatiko eta/edo senide baten heriotzagatiko baimena, norberaren gauzetarako baimena, diziiplina-zehapena eta abar.

Gure iritiz, halako informazioa langileen arduradun gisa edo langileriaren kudeaketa-arloari atxikitako funtzionario gisa betetzen duten lanpostuagatik legitimatutako pertsonak soilik jakin beharko lukete eta, hasieran eta orokorrean, gainerako funtzionarioek ez dute zertan jakin absentziaren arrazoiak.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da kasu ugari gerta daitezkeela; besteak beste, absentzia hori gerta daiteke gaixotasun batengatik (beraz, zer argitaratzen den kontuan hartuta, kategoria berezietako datuak uki litezke) edo administrazio arau-hauste baten zioz ezarritako diziiplina-zehapen batengatik (azken informazio horretarako Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Legeak araubide oso zorrotza aurreikusten du) eta abar.

Kasu horietako lehenengoari dagokionez, datu-kategoria berezien tratamendurako araubidea Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 9. artikuluan jasotzen da. Artikulu horren bigarren apartatuan ezartzen dira tratamendu hori legitimatzen duten kasuak, eta galderaren xede diren kasuak ezin ditugu inon ere kokatu.



Administrazio-zehapenei dagokienez, nabarmendu behar da Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Legeak 27. artikuluan sistema indartua ezarri duela administrazio-arloko arau-hauste eta zehapenekin loturiko datuen tratamendurako, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrek horri buruz ezer ere azaltzen ez duen arren.

27. artikulua horretan bildutako legezko manuaren arabera, administrazio-arloko arau-hauste eta zehapenekin loturiko datuen tratamendurako legitimatuta egongo dira zehapen-prozedura bideratzeko organo eskudunak, arau-haustea aitortzeko edo zehapenak jartzeko, baldin eta tratamenduak zer helburu duen, hori lortzeko behar diren datuen eta ez gehiagoren tratamendua bada.

Baldintza horietako bat betetzen ez denean, tratamendu horretarako, interesdunaren adostasuna izan behar da edo lege mailako arau batek baimendu behar du, zeinaren bidez arautuko baitira, hala badagokio, ukituen eskubide eta askatasunetarako berme osagarriak.

Nolanahi ere, jarduketa horietan esku hartzen dutenek beren zereginak betetzen dihardutenean eskura duten informazioa isilpean gorde behar dute nahitaez, baita lan hori utzi eta gero ere. Antzeko kautela-neurriak jasotzen dira Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Legearen 10. artikuluan, zigor izaerako datuen tratamendurako.

Zilegitasun-printzipioa aztertutakoan, honako hau ohartarazi behar da: datu pertsonalen babeserako funtsezko eskubidea taxutzen duten printzipio nagusietako bat izan arren, ez da printzipio bakarra; beraz, datuen tratamenduak datu pertsonalen babeserako araudia beteko badu, gainerako printzipioak errespetatu behar dira, eta aztergai dugun auziari dagokionez, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 5 1.c) artikuluan jasotzen den datuak minimizatzeko printzipioa nabarmendu behar da. Printzipio horrek dioenez, datu pertsonalak *“egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak izango dira, haien tratamenduaren helburuen arabera”*.

Oinarritzko printzipio horren bidez bermatu nahi da arduradunek eta eragileek lortu nahi diren helburuetarako ezinbestekoak diren datu pertsonalak soilik trata ditzatela; bestalde, datuen tratamendu guzti-guztiei buruz txostena egin behar dute.

Lehenago esan dugunez, zilegitasun-printzipioaren arabera, Administrazioak ahalmena dauka funtzionarioen informazio pertsonala tratatzeko; hala ere, tratamendu horren mugak lortu nahi den helburuaren mendean egongo dira, eta hala, egokiak, zehatzak eta neurrizkoak diren datuak soilik tratatuko dira. Gure iritziz, zerbitzua behar bezala kudeatzeko ez da nahitaezkoa prest ez dauden langileen absentsien arrazoiak jakitea, eta informazio hori buruz erreserba gorde behar da.

Horren haritik, informazio pertsonala erakundearen barruan eta lan-arloan zabaldu den arren, baliteke datuen tratamendu horrek konfidentzialtasun-eginbeharra urratzea. Hala, edozein erakunderen pribatutasun-politikan informazioa atzitzeko profil diferentek esleitzen dira, agindutako zereginen arabera; hala, erakundearen barruan atzipen horiek legitimoak izango dira lan-harremana betetzeko beharrezkoak diren neurrian.

Horregatik, langilearen eta enplegatzailearen arteko harremanaz harago doazen informazio guztiak ezin ditu beste inork jakin; hala izango balitz, lan-harremanaren oinarri izan behar den legezko konfiantza urratuko litzateke, eta era berean, langilearen pribatutasunari



buruzko arrazoizko iguripenak ere urratuko lirateke. Are gehiago: aztergai dugun kasu honetan, halako informazioa zabaltzea ez da beharrezkoa lortu nahi den helburua lortzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 21a